

HIZKUNTZA GAITASUNEN AZALPENA

2. HE

2. HEren hizkuntza-gaitasunen azalpena

Mailaren jabea gai da:

- Hizkuntza estandarrean eta euskalki nagusietan, gai ezagunei buruz entzundako elkarrizketak, bestelako adierazpenak eta gai orokorren ideia nagusiak ulertzeko.
- Gai orokorren inguruko eta bere lan-esparruko testuak ulertzeko; baita gai zehatzei nahiz abstraktuei buruzko testuen ideia nagusiak ulertzeko ere.
- Eguneroko gaien inguruko elkarrizketetan, bat-batean, naturaltasunez eta jariotasunez parte hartzeko, gai ezagunei buruzko iritzia emateko eta aukera ezberdinen aurrean aldeko eta kontrako argudioak azaltzeko.
- Bere lan-esparruko eta hainbat gai ezagunei buruzko testu argiak, zehatzak eta koherenteak sortzeko eta iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emateko.

2. HE eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB) B2 maila baliokideak dira.

B2 mailaren deskribapen orokorra (EEMB)

Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoenak ere, betiere, bere espezialitatearen arlokoak badira.

Jatorrizko hitzunekin mintza daiteke, jariotasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek, ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko.

Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorrei buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Honako hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

2. HE

IDAZMENA	
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> Gaiari heldu dio. Hitz kopurua bete du. Testu mota errespetatu du. <i>(Hau da, iritzi artikulua eskatu bazaizu ez idatzi eskutitza).</i> Kontuan hartu du nori idatzi dion, zertarako... <i>(Adib.: agurra egitean "kaixo nagusia" "lankide agurgarria" bezalako agurrak ez dira egokiak, eta gogoan izan, ahozko erregistroa ez dela egokia: "Ez dakit garaiz helduko naizen ze gauza asko egin behar dut...").</i>
Koherentzia	<ul style="list-style-type: none"> Testu ulergarria idatzi du eta irakurleak ez du asmatzen ibili behar izan. Testuak orden eta progresio logikoa du eta irakurtzean ez da haria galtzen. Ideiak argi azaldu ditu.
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> Ideiak eta esaldiak egoki lotuta daude eta irakurketa garbia da. Esaldiak lotzeko, oinarriko kohesio elementuak erabili ditu, ez ditu behin eta berriro errepikatu eta ez da esaldi laburretara mugatu. <i>(Adib.: esaldiak lotzeko eta testua egituratzeko testu antolatzaileak egoki erabili behar dituzu: hasteko, jarraitzeko, bukatzeko, halaber, dena den, beraz, alabaina, nahiz eta...).</i> Puntuazioa egoki erabili du.
Aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> Oinarriko lexikoa, hau da, eguneroko egoerei dagokiena (norbera, familia, zaletasunak, lana...) zuzen erabili du. Ideiak nolabaiteko zehaztasunez eta egitura sinpleetara mugatu gabe azaldu ditu.
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> Akats kopurua. Akatsak ez dira oinarrikoak izan. Akatsak ez dute ulergarritasuna oztopatu. Ez du behin eta berriro errepikatzen den akatsik egin. Ortografia zuzena da.

2. HE

MINTZAMENA	
Komunikagaitasuna	<ul style="list-style-type: none"> Gaiari buruzko azalpenak eta iritziak zailtasunik gabe eman ditu. Elkarrizketan iritzia, argudioak eta informazioa trukatzeko ez du arazorik izan; hau da, solaskidearekin informazioa arazorik gabe trukatu du. Ariketa bietan erabili du erregistroa egoki. <i>(Kontuan hartu, bakarrizketan zein elkarrizketan modu formalean jardun behar duzula ezezagun baten aurrean).</i> Komunikazio garbia. Erraz ulertu da esan duena.
Jariotasuna	<ul style="list-style-type: none"> Natural komunikatu du eta hitz egitean ziurtasuna erakutsi du. Ez du ia etenik eta errepikapenik egin. Abiadura kontrolatu du eta ez da egon gorabehera handirik. <i>(Kontua ez da oso ezkar hitz egitea, erritmo natural eta jarraia erabiltzea baizik).</i> Elkarrizketan bat-batekotasunez eta natural jardun du. Entzulea eroso sentitu da.
Aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko lexikoa, hau da, eguneroko egoerei dagokiena (norbera, familia, zaletasunak, lana...) zuzen erabili du. Lexiko orokorra ere erabili du. Egitura sinpleak erabiltzera ez da mugatu, egitura konplexuak ere erabili ditu.
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> Akats kopurua. Akatsak ez dira oinarrizkoak: aditzaren aspektua, deklinabidea, zehar galdera, konpletiboa... Akatsek ez dute ulergarritasuna oztopatu, alegia, nahiz eta akatsen bat egon, mezua argia izan da. Akatsez ohartu da eta zuzendu egin ditu. Ahoskera eta intonazioa egokiak izan dira.